

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ERABILERA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

I. Sarrera:

Lan honek helburu izango du gaur egun euskarak epaitegietan duen egoera aztertzea, hizkuntzaren normalizazio prozesuaren testuinguruan. Horretarako, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egin diren ekimenak landuko dira.

II. Herri-Administrazio eta Epaitegietan euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak: “Euskara Biziberritzeko Planak”

Azken hogeita bost urteotan, euskara normalizatzeko ahalegin handiak egin dira, eta horiei esker, euskarak esparru berriak irabazi ditu gizartean, komunikabideetan, merkataritzan, lan munduan, eta, baita Administrazio Publikoan eta arlo juridikoan ere.

Aurreko “Euskara Biziberritzeko Plangintzaldietan”, administrazioiko langileak euskalduntzeak zuen lehentasuna: langile askok hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute; beraz, euskaraz lan egiteko prestatuta daudela esan dezakegu. Zoritxarrez, euskara ez da oraindik Administrazioiko lanerako hizkuntza.

Gero eta elebidunagoa den gizarte batean bizi gara, eta horrek Administrazioari eskatzen dio herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, eta etengabe aukera berriak eskaintzen egotea, herritarrei inolako deserosotasunik eragin gabe.

Euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldika kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Lehen plangintzaldian 1990an jarri zen martxan, eta orain arte, hiru izan dira: lehenengo bietan, Administrazioiko langileak euskalduntzeari eta alfabetatzeari eman zitzaion lehentasuna, alegia, euskararen ezagutza sendotzeari; hirugarrenean, berriz, Administrazioan euskara erabiltzeari eman nahi zaio garrantzirik handiena. Bada, IV. Plangintzaldi honetan ere, orain arteko bidea sendotu nahi da, eta ezagutzak garrantzia izaten jarraituko badu ere, erabilera izango da erronka nagusia: euskara ere lanerako hizkuntza bilakatzea, eta, modu horretan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu. Horretarako, langile gehiago sartuko dira erabilera planetan, eta motibazioaren bidez, metodologia erraza eta malgua erabilia, eta beharrezko baliabideak jarritz, hizkuntzen erabileran berdintasunerantz joko da: euskaraz eta gaztelaniaz jardutera; hori bai, euskarazko sortze lana areagotuta.

86/1997 Dekretuak 19. artikuluan ezartzen du Euskal herri-administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko planak onartuko dituztela plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean, eta horrelakorik onartua duten kasuetan, hauei egin beharreko egokitzapenak. Urte hauetan lanpostuetako hizkuntza eskakizunak ezarri dira, langileak euskalduntzeaz arduratu dira, euskararen presentziari bere tokia aitortu diote...

Xede nagusia: euskara ere Administrazioaren ohiko hizkuntza. Orain dela urte batzuk ez zen guztiz normala euskara jakin beharra aldarrikatzea Administrazioan lan egiteko. Gaur egun, ordea, jakin-behar hori normaltasun handiagoz onartzen da.

IV. Plangintzaldiaren helburua hori izango da: euskara ere lan hizkuntza ohikoa bilakatzea. Euskararen presentzia bermatzea ez da helburua, zeren hori, itzulpena erabilia bada ere, dagoeneko ziurtatuta dago neurri handi batean. Hortaz, helburua Administrazioan bi hizkuntzen erabileran

berdintasuneranzko pauso eraginkorrek ematea.

III. Ekimenak:

1. Legeria eta euskara:

Arlo juridikoan euskararen normalkuntzarako aurrerapauso garrantzitsuenak Administrazioaren erregulazioan eman direla esan dezakegu.

Euskal Autonomi Erkidegoan, Justizia Administrazioan euskara erabiltzeko esparrua, oinarrian, 1978ko Konstituzioak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak, Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Botere Judizialaren Lege Organikoak definitzen dute. 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, EAeko Justizia Administrazioako Hizkuntza-Normalkuntzari buruzkoa eta Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna ere kontuan hartzekoak dira.

1978ko Konstituzioan, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskubideak bermatzeko oinarriak ezartzen dira, 3.artikuluaren: *“Espainiako beste hizkuntzak ere dagozkien autonomia-erkidegoetan ofizialak izango dira, horietako estatutuekin bat etorritik”*.

EAek, gaztelaniaren eta euskararen koofizialtasuna ezarri zuen, Autonomia Estatutuko 6.artikuluaren: *“Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzoz jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte. Inor ezin izango da hizkuntza dela eta diskriminatu”*.

Euskal Autonomia Erkidegoak 10/1982 Legea onartu zuen euskararen erabileraren normalizazioa lortzeko helburuarekin. Euskararen Legeak, hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkie herritarrei, eta horiek bermatzeko EAEn kokatutako herri-administrazioen eginbeharrak ezartzen ditu. Justizia Administrazioari dagokionez, eskubide hauek, Legearen 9.artikuluak jasotzen ditu: *“Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska daitekeela. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epai jardunak, balio eta eragin-indar osokoak izango dira. Eusko Jaurlaritzak, dagokien organoekin elkar hartuta, Euskal Herriko Justizia Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko du”*.

Botere Judizialaren Lege Organikoak, jardun judizialeko hizkuntzaren ofizialtasuna zehazten du 231 artikuluan:

“Jardun judizial guztien epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, Estatuko hizkuntza ofiziala. Horiek, Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa erabil dezakete, alderdietako inork, hizkuntza hori ez dakiela alegatuz, aurka egiten ez badu, egoera horrek defentsa-gabezia sor baitezake. Alderdiek, beren ordezkariak eta zuzentzen dituztenek, baita lekukoak eta adituek ere, jardun ofizialak gauzatu behar dituzten lurraldeko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala erabil dezakete, bai ahozko adierazpenetan baita idatzizkoetan ere.

Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean gauzatutako jardun judizialek eta aurkeztutako agiriek erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna izango dute, gaztelaniara itzuli beharrik gabe. Jardun judizial eta agiri horiek ofizioz itzuliko dira Autonomia Erkidegotik kanpo dauden organo judizialean ondoreak sortu behar dituztenean, salbu eta hizkuntza ofizial bera duen Autonomia Erkidegoak badira. Era berean, itzuli egingo dira legeetan horrela ezartzen denean edo defentsa-

gabezia alegatzen duen alderdiak hala eskatzen duenenan”.

341. artikulua dioen arabera, hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako organo judizialean, karrera judizialeko kideei erreserbatutako lanpostuak betetzeko merezimendutzat joko da hizkuntza ofizial propioa jakitea.

Zuzenbide Zibil berezia edo forala eta hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako Auzitegi nagusietako eta Probintzia-azuzitegiak lehendakarien lanpostuak betetzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak merezimendutzat hartuko ditu Zuzenbide Zibil Berezia edo Forala ezagutzea eta Autonomia Erkidego horretako hizkuntza jakitea.

174/2010 Dekretuak, ekainaren 29koa, EAEko Justizia Administrazioaren Hizkuntza-Normalkuntzari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen koofizialtasun erregimena praktikara eramatea du helburu, Justizia Administrazioarekin harremanetan dagoen edozein herritarrek euskaraz nahiz gazteleraz egiteko aukera izan dezan. Dekretuak euskararen erabilera sustatu nahi du, eremu judizialean laneko hizkuntza bezala.

Testu honek bos urterako Plana ezartzen du, hurrengo helburua lortzeko: Justizia Administrazioaren barneko hizkuntzak berezitako %35 lanpostu izateko, euskararen benetako ezarpenaren arabera, barruti judizialean proportzionalki banatuta. Horrela, bi lanpostu mota izango dira: alde batetik, generikoak, non euskararen ezagutza merizimendu izango den, eta, bestetik, berezituak, zeinetan euskara derrigorrezkoa izango den.

2. Euskalduntzea:

Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko, zenbait ikastaro antolatu dira besteak beste, funtzionario, epaile, fiskal eta idazkari judizialentzat.

Urtez urte handitzen ari da hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta duten langileen kopurua. Gaur egun, epaitegiak langileen %35ek dauka egiaztatuta hizkuntza-ezagutzaren bat. Urtero bultzatzen da langileen artean euskara-ikastaroetarako matrikulazioa, helburua euskaraz dakiten langileen kopurua handitzea baita, eta horren ondorioz zerbitzua bai euskaraz bai gazteleraz (berdintasunez) eman ahal izango baita.

Hobekuntza-ikastaroak ere eskaintzen dira, euskara maila jakin bat lortua dutenei. Ikastaro horietan terminologia eta hizkuntza juridikoa, idazkera profesionalerako teknika, bi hizkuntzetako izapidetzea eta abar lantzen dira.

Euskalduntzeko ekimen horiek erakunde publiko, zein pribatuek sustatzen dituzte: alde batetik, HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) eta IVAP-HAEEK (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea), eta; bestetik, epaitegietatik kanpoko profesionalentzat (abokatu, notario, aholkulari juridiko...) dauden ikastaro eta baliabideak. Azken horiek UZEIk sustatzen ditu.

3. Itzulpengintza:

Euskal Autonomia Erkidegoan auzitegiak euskarazko itzulpenak egiteko zerbitzu bat dago, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin eta Legelarien Euskal Kontseiluarekin elkarlanean. Itzulpengintza juridikoaren esparruan, Zuzenbide Prozesaleko testuak dira lan-eremu nagusia: batetik, abokatuen idazki-ereduen bildumak euskaratuta (prozedura zibilekoak, kriminalekoak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak, etab.), eta, bestetik, auzitegiak sortutako dokumentuak ere euskaratuta (epaileen ebazpenak, idazkari judizialen aktak, epaitegien arteko komunikazioak, eta, prozesuko alderdiei zuzentzen zaizkien komunikazio-idazkiak).

1996. urteatik aurrera auzitegietako agiriak euskaratzen jardun dira. Justizia Sailak sustatuta eta antolatuta, epaitegietako agirien itzulpena normalizatzeko batzorde bat eratu zen: Justizia Saileko Euskara Batzordea. Epaitegietako agirien idazkera eta terminologia juridikoa landu eta adosten dute. Lanean hasi zirenetik gaur egun arte, 2500 dokumentu euskaratu eta adostu dituzte.

Gaur egun, euskara juridikoaren egoera asko hoentzu da. Zuzenbideko euskal terminologiaren normalizazioan aurrerapauso handiak egin dira eta itzulpengintza juridikoa asko sendotu da: alde batetik, hainbat lege-testu euskaratu dira, eta, horrek, lege-hizkera mamitzen ari da euskaraz. Bestetik, zuzenbideko eskuliburuak euskaratu, eta hiztegi eta lexikoak landu dira. Horrela, Justizia Administrazioan erabiltzen diren agiri judizialak itzultzeko ereduak normalizatu dira. Euskara Batzordeak 2006an itzulpen memorien erabileran oinarritutako itzulpen sistema bat jarri zuen abian. Honek funtzionarioen lana asko erraztu du.

Honez gain, itzulpengintzari dagokionez, UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa eta Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak egindako itzulpengintza lanak aipatu behar ditugu.

4. Euskarazko terminologia juridikoa:

Azken urteotan, euskarazko terminologia juridikoaren normalizazioan ere aurrerapausoak egin dira. Terminologia juridikoan oinarrituz, zenbait lan egin dira euskaraz:

- Unibertsitateetan euskaraz landutako Zuzenbideko eskuliburu, ikasmaterial, ikerketalan, aldizkari juridiko eta glosarioak.
- Administrazio Publikoan jorratutako testugintza juridikoa (Eusko Jaurlaritzan eta Legebiltzarrean, Nafarroako Gobernuan eta Parlamentuan, Diputazioetan eta Udaletan).
- Epaitegietako Agiriak Normalizatzeko Batzordeak egiten diharduen lana.
- EHUK, Deustuko Unibertsitateak eta IVAPek euskaratu dituzten eta euskarazten diharduten lege-testu nagusiak.

Lan horiek guztiek Corpus Juridiko sendoa osatzen dute, eta bertan dagoen terminologia juridikoa aberatsa den arren, adostasun terminologikoa ez da erabatekoa. Euskarazko terminologia juridikoaren normalizazioaren bidean aurre egiteko, beharrezkoa izango litzateke terminologia erabat adostea.

5. Baliabideak:

Euskararen normalizazioan oso baliagarri eta erabilgarriak diren zenbait baliabide aurki daitezke interneten. Euskara juridikoan lagungarri izan daitezkeen baliabide ugari aipatu behar ditugu: alde batetik, gaztelerazko baliokideak interneten aurkitzeko hiztegi eta bilatzaileak (Euskalterm, Lexikoaren Behatokiaren Corpusha...), eta, bestetik, euskara juridiko egokia ikasteko eta lantzeko baliabideak. Aipatzekoak dira UZEI, EpaiNET, eta abar.

III. Ondorioak:

Nabarmena da euskarak Justizia Administrazioan duen garapena, euskara juridikoaren normalizazio prozesuan egiten ari diren ekimenen ondorioz. Baina, azken urteotan asko aurreratu dugun arren, oraindik bide luzea dago lortzeke.

Euskara da Euskal Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza, eta, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala denez, EAEko epaitegi eta auzitegitan erabili daiteke herritarrei inolako oztopo edo eragozpenik sorrarazi gabe. Beraz, Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoarekiko harremanetan, herritarrok hizkuntza ofizial biak erabiltzeko eskubidea daukagu, eta ezin izango

zaigu inolako itzulpenik eskatu. Hori horrela bermatuta dagoen arren, herritarrok epaitegietan eta Administrazioarekiko harremanetan euskaraz egiteko eskubidea dugun arren, hori ez dugu guztiz lortu. Horrek, oinarriko eskubideen urratze sistematikoa ekarri du; izan ere, euskaldunok etengabe aurkitzen ditugu euskaraz jarduteko zailtasun eta oztopoak, batez ere, Justizia Administrazioaren eremuetan.

Hortaz, euskararen normalizazio-egoera lortzeko eta gazteleraren maila bera eskuratzeko, Administrazio Publikoen, legelari eta juristen eta herritarron ekimenak beharrezkoak direla (funtzionarioek eta epaitegietako langileek euskaraz jardutea, jurista elebidunak sortzea...). Gure eskubide eta beharra da, epaitegi eta Administrazioarekiko harremanetan, eguneroko beste eremuetan bezala euskaraz mintzatzea.

Horrela, euskararen etorkizuna gure esku dago.